Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUAREN ENTZUNALDI IZAPIDEAREN ETA JENDAURREAN JARTZEKO IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA. HAREN BIDEZ, 2022. ETA 2023. URTEETARAKO BATUZ SISTEMARI BORONDATEZ ATXIKITZEKO BALDINTZAK ETA APLIKATU DAITEKEEN KONPENTSAZIOA EZARTZEN DIRA, ETA ALDAKETAK EGITEN DIRA TRIBUTU-ERREGELAMENDU BATZUETAN.

MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRÁMITE DE AUDIENCIA E INFORMACIÓN PUBLICA DEL DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA MEDIANTE EL QUE SE DETERMINAN LAS CONDICIONES EN LAS QUE DEBERÁ LLEVARSE A CABO LA ADHESIÓN VOLUNTARIA AL SISTEMA BATUZ PARA 2022 Y 2023, ASÍ COMO LA COMPENSACIÓN APLICABLE Y SE INTRODUCEN CIERTAS MODIFICACIONES EN DIVERSOS REGLAMENTOS TRIBUTARIOS.

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko, foru-dekretu baten proiektua argitaratu zen, urriaren 20an, Bizkaiko Foru Aldundiaren webean, izapidean dauden prozesuen atalean, eta, hala, abian jarri zen entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea. Foru-dekretu horren bidez, 2022. eta 2023. urteetarako BATUZ sistemari borondatez atxikitzeko baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributu-erregelamendu batzuetan.

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, con fecha 20 de octubre se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia, dando así inicio al trámite de audiencia e información pública, el proyecto de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia mediante el que se determinan las condiciones en las que deberá llevarse a cabo la adhesión voluntaria al sistema BATUZ para 2022 y 2023, así como la compensación aplicable y se introducen ciertas modificaciones en diversos Reglamentos tributarios.

Goian deskribatutako proposamenari buruz herritarrek egoki deritzen iradokizun edo ekarpenak idatziz aurkezteko 15 eguneko epea amaituta, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuaren 13. artikuluaren 3. apartatuarekin bat etorriz, jaso diren

Una vez transcurridos los 15 días preceptivos, de acuerdo con lo previsto en el apartado 3 del artículo 13 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, para que la ciudadanía presente por escrito las sugerencias o aportaciones que entienda

Elektronikoki sinatutako dokumentua. WZE5-0JR9-WNX5-6RTA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) WZE5-0JR9-WNX5-6RTA en www.ebizkaia.eus.

proposamenei buruzko txostena egin behar da.

convenientes sobre la propuesta normativa antes descrita, procede elaborar la presente memoria relativa a las propuestas recibidas.

Horri dagokionez, jasotako datuen artean honako hauek nabarmentzen dira:

En este sentido, los datos más destacables recogidos son los siguientes:

Lehenengoa. Kontsulta honetan 6 erregistro ziurtatu dira, eta hainbat motatako galderak egin dira.

Primero. Se han certificado 6 registros en esta consulta, en los que se han formulado cuestiones de diversa índole.

Bigarrena. Idazkietako bost zergadun partikularrei eta aholkularitza bati dagozkie, eta hainbat zalantza planteatzen dituzte BATUZ sistemaren aplikazioari buruz; bereziki, 2022an eta 2023an sistema hori sustatzeari eta hari atxikitzeari buruz. Horrez gain, borondatezko atxikimendu hori hautatu nahi dute aurkeztutako idazkien bidez. Seigarren idazkia Bizkaian egoitza duen profesionalen elkarte bati dagokio. Foru Dekretuaren proiektuaren artikuluen atal batzuk argitzea planteatzen du, borondatezko aldian benetan alta emandako egunekin zerikusia dutenak.

Segundo. Cinco de los escritos corresponden a contribuyentes particulares y una asesoría que plantean diversas dudas en cuanto a la aplicación del sistema BATUZ y en particular, sobre la incentivación y adhesión voluntaria a dicho sistema en 2022 y 2023, pretendiendo adicionalmente optar por dicha adhesión voluntaria mediante los escritos presentados. El sexto escrito corresponde a una asociación de profesionales, domiciliada en Bizkaia, que también plantea la aclaración de algunos apartados del articulado del proyecto de Decreto Foral relacionados con las fechas efectivas de alta en el periodo voluntario.

Testuinguru horretan, argitu behar da foru-dekretuaren proiektuaren 1. artikuluak ezartzen duela 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera BATUZ sistemara borondatez atxikitzeko aukera Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan inprimaki bat betez jakinarazi beharko dela, 3. atalean adierazitako epeetan, eta gai horri buruz kontsultatu, planteatu eta argitu nahi diren zalantza eta gai guztiak www.batuz.eus helbide elektronikora igor daitezkeela.

En este contexto, conviene aclarar que, tal y como establece el artículo 1 del proyecto de Decreto Foral, la opción por la adhesión voluntaria al sistema BATUZ a partir del 1 de enero de 2022 deberá ser comunicada mediante la cumplimentación de un formulario en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia en los plazos indicados en su apartado 3 y que todas las dudas y cuestiones que se deseen consultar, plantear y resolver en torno a esta materia podrán realizarse a

Elektronikoki sinatutako dokumentua. WZE5-0JR9-WNX5-6RTA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) WZE5-0JR9-WNX5-6RTA en www.ebizkaia.eus.

Gainera, kontuan hartu behar da idatzizko zalantzak helbide hauetara ere bidali daitezkeela: batuz.zergak@bizkaia.eus (fiskalak) eta batuz.programak@bizkaia.eus (teknologikoak).

Hirugarrena. Era berean, testu arauemailea entzunaldi-izapiderako eta jendaurreko informaziorako ezarritako epean berrikusi ondoren, beharrezkotzat jotzen da idazkeraren hobekuntza tekniko bat sartzea laugarren xedapen iragankorrean, zehaztasun handiagoa izan dezan eta haren aplikazioa errazteko.

Hori dela eta, ondorioztatzen da ez dagoela eragozpenik foru-dekretuaren proiektua izapidetzeko.

Beraz, egokitzat jotzen da izapidetzen jarraitzea.

través de la dirección de internet www.batuz.eus, teniendo en cuenta además que las dudas por escrito se pueden enviar a batuz.zergak@bizkaia.eus (las fiscales) y a batuz.programak@bizkaia.eus (las tecnológicas).

Tercero. Asimismo, una vez revisado el texto normativo durante el plazo establecido al efecto para el trámite de audiencia e información pública, se considera necesario introducir una mejora técnica de redacción en la Disposición transitoria cuarta, con el fin de dotarla de una mayor precisión y de facilitar su aplicación.

Por lo expuesto, se puede concluir que no se han recibido objeciones a la procedencia de la tramitación del proyecto de Decreto Foral.

En consecuencia, se estima oportuno continuar con la tramitación.

Sin./Fdo.: GORKA PEREDA DE LOZAR - 2021-11-08
ZERGA POLITIKA ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE POLÍTICA FISCAL

Elektronikoki sinatutako dokumentua. WZE5-0JR9-WNX5-6RTA Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) WZE5-0JR9-WNX5-6RTA en www.ebizkaia.eus.